



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko azaroaren 9a

108. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko herritarren eskubideei eta betebeharrei buruzkoa. Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da flebotomia terapeutikoak modu zentralizatuan eta hematologiako espezialista baten ikuskaritzapean egin daitezen. Mozioa Erretiratzea (19. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Osasun-ikerketako Institutua sortzeari buruzkoa, Samuel Caro Sádaba jaunak egina (20. or.).
- Galdera, gizarte-prestazio oro agorturik duten eta langabezian dauden nafarrekin Nafarroako Gobernuak dituen konpromisoei buruzkoa, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (21. or.).
- Galdera, jakiteko zer aurreikusi duen Nafarroako Gobernuak Entzierroaren eta Sanferminen Zentro Tematikokoaren obren hasiera atzeratzeko eta moratoria bat aplikatzeko, José Andrés Burguete Torres jaunak egina (21. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuko lehendakariak uste ote duen gure erkidegoa jadanik krisi osteko fasean dagoela, ala langabeziaren igoerari beste politika batzuen bidez aurre egiteko asmoa ote duen, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (22. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko herritarren eskubideei eta betebeharrei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 25ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak Nafarroako Foru Komunitateko herritarren eskubideei eta betebeharrei buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Foru Komunitateko herritarren eskubideei eta betebeharrei buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2010eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Foru Komunitateko herritarren eskubideei eta betebeharrei buruzko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENEA

Nafarroaren foru araubideak, bere mendetako indarraldian eta garapenean, nafarren eskubideak ziurtatzea ahalbidetu du, erakunde politiko eta administratiboaren aurrean.

Foruak Zuzenbidearen eta herritarren eskubideen eta askatasunen sinonimo dira; izan ere, foruen existentziari eta garapenari esker, botere publikoen aurrean baliatzen ahal diren eskubide

subjektiboen katalogo handi bat ezarri da aurrean, eta katalogo hori modu dinamiko batez gaurkotu da hurrena, eskubide horiek inguru hurbilean zuten bilakaerarekin bat.

Nafarroako Parlamentuak bere ordenamendu juridikoan jaso ditu beste esparru batzuetan aitortutako edo sortutako eskubideak –autonomia erkidegoetan, estatuan, Europan nahiz nazioartean–, eta orobat jakin du aitzindari izaten laguntza publikoa behar duten gizarteko sektoreen aldeko eskubide sozial ugari aitortzerakoan, prestazio eta zerbitzu publiko eraginkor bihurtu direnak ondoren.

Orain dela gutxi, zenbait autonomia estatutuen erreformak onetsi dira. Esate baterako, Valentziako Erkidegoko, Kataluniako, Andaluziako, Aragoiko, Balearretako eta Gaztela eta Leongo estatutuak. Aldaketa horiek guztiek jaso dute taula bat –handiagoa edo txikiagoa–, autonomia erkidegoko herritarren eskubideei eta betebeharrei buruzkoa eta oro har enbor komuna duten politika publikoen printzipio gidariei buruzkoa.

Ikuspegi juridiko hertsia batetik, Konstituzio Auzitegiak argitu duen legez, eskubide eta printzipio gidari horiek aldarrikatzeko eta aitortzeko ez da ezinbestekoa autonomia estatutu batean edo lege organiko batean jasotzea horiek; alegia, ez da beharrezkoa Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa aldatzea, eta ez dago zertan abiarazi horrek berarekin dakarren prozedura luzea, ez Estatuarekiko negoziazioa ireki beharrik ere edo haren borondatearen mende egon beharrik ere, egungo autonomia estatutuetan jasota ageri diren politika publikoen printzipio gidarien eta eskubideen maila bera izan dezaten, gutxienez ere, nafar herritarrek.

Maila hori bera erdiesteko, eta are gaintzeko ere, aski da Nafarroako Parlamentuak, bere legegintza-ahalmena eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren arabera Nafarroak dituen eskumenak baliatuta, foru lege bat onestea.

Izan ere, Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako herria ordezkatzan duenez gero, legegintzarako ahalmen osoa du, eta, hartara, foru lege bat onets dezake, gaur egun autonomia estatutuek kasuan kasuko autonomia erkidegoko herritarrei aitortzen dizkieten eskubide –sozialak, gehienbat–, betebeharrak eta printzipio gidari guztiak jasoko dituena. Baita horiek areagotzeko eta, garrantzitsuagoa dena, zehazteko eta auzitegiek exijitzeko modukoak eta zuzenean eragingarri egiteko ere, kasu askotan ez baita halakorik gertatzen estatutu- edo autonomia-eskubide deritzenekin, Konstituzio Auzitegiak adierazi duen bezala.

Nafarrek, hortaz, estatutu-eskubideak osotara balia ditzakete Parlamentuaren borondateari esker, hedapen eta zehaztapen handiagoarekin eta, jakina, indar juridiko handiagoarekin.

Foru lege hau onesteak bere herritarren eskubide sozialen aitorpenaren abangoardian jartzen du Nafarroa –Hobetzea aldatu beharrik gabe–, Nafarroako Foru Komunitatearen autogobernu maila handiaren erakusgarri. Eta eskubide horien aitorpenerako foru lege bat baliatzea, estatutu baten lege organikoak ematen duen bermea baino txikiagoa izatetik urruti, beste leku batzuetan sor daitezkeen eskubide berriak aldiari aldiari eta modu dinamikoan gurean jasotzeko modu eta bermerik onena da, baldin eta foru erkidegoko legegileak egoki ikusten badu eskubide horiek hasieran aitortutakoei gehitzea, esperientziaren edo inguruabarren arabera.

Estatutu-erreforma anbiziotsuenen eskema orokorrari jarraikiz, foru legeak ezin hobeki bereizten ditu herritarren eskubideak, betebeharrak eta politika publikoen printzipio gidariak. Lehendabiziko bi kategorien ezaugarria da lotesleak eta jurisdikzio eskudunean exijitzekoak direla; hartara, benetako eskubideak eta betebeharrak baldin dira, nahiz eta zenbait kasutan horiek zehaztuko dituen lege batek xedatzen duenaren mende egon, berrikitan onetsitako beste lege arrunt batzuetan ikus daitekeenez ohikoa den teknikari jarraikiz. Politika publikoen printzipio gidariak, berriz, Konstituzioak 39. artikulutik 52.era bitartekoetan ezartzen dituen politika sozial eta ekonomikoaren printzipio gidariak jarraitzen dituzte, eta politika publikoak orientatzera eta botere publiko eskudunen jarduna eta araugintza-boterea informatzera mugatzen dira. Horrek ez du esan nahi balio edo indar juridiko loteslerik ez dutenik, baizik eta, balio edo indar hori izanda ere, foru erakundeek edo administrazio publikoek egintza zehatz bat egin beharko dutela ondoren, horiek garatzeko eta aplikatzeko. Edozein modutan ere, bere jardunean ezin izanen dira printzipio horietatik aldentu, ez

horiei muzin egin ere, eta printzipio horiek bete beharko dituzte jarduten dutenean.

Eskubideen titularrei dagokienez, foru legeak, oro har, eskubide publiko subjektiboaren eskema komuna jarraitzen du. Eskubideen unibertsaltasuna aitortzen du oro har –hortaz, eskubide horiek pertsona ororentzakoak dira gehienbat–, baina zenbait eskubide mugatzen ditu, batez ere prestazio arloko batzuk gai zehatz batzuetan, nafarrei soilik aitortzen dizkielako, hau da, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 5.1 artikulua arabera nafartasun politikoa dutenei. Dena den, Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoan atzerritarrei aitortzen zaizkien eskubideak eta askatasunak aitortzen zaizkie atzerritarrei Nafarroako Administrazio Publikoetan.

Foru legeak estatutu-erreformatik harantzago zabaltzen dituen eskubideen artean nabarmendu behar da ingurumen arloko araudia betetzea exijituko duela jardun publikoak; izan ere, Estatuko ordenamenduak ez du halakorik osotara aitortzen, eta horren falta sumatu dugu, paradoxikoa ere izan baita ordenamenduan hori ez jasotzea, Konstituzioak 45.1 artikuluan ezartzen delako pertsona guztiak dutela ingurumena zaintzeko betebeharra, salbuespenik gabe. Foru legeak orobat aitortzen du herritarrek erantzuna euskaraz eta, betiere, gaztelaniaz jasotzeko eskubidea dutela, eremu mistoan dauden administrazio publikoetara eta foru erakundeetara idatziz jotzen dutenean. Halatan, eremu mistoan botere publikoekiko harremanean euskara erabiltzeko eskubidea osatzen da erantzuna, gaztelaniaz gain, hizkuntza horretan berean jasotzeko eskubide logikoarekin, eremu horretan ofiziala baita, eta ez da oinarrizko gizalege hutsagatik, baizik eta, modu generikoan, Europar Batasunak herritarrei aitortzen dien eskubide baten gisakoa delako (Europar Batasuneko erakundeekiko harremanetarako zer hizkuntza ofizial hautatzen duten, erantzuna hizkuntza horretan jasotzeko eskubidea aitortzen zaie herritarrei).

Halaber, etxebizitza bat eskuratzeko adina baliabide ekonomiko ez duten nafarrei bere sarreraren araberrako laguntza ekonomiko jasotzeko eskubidea aitortzen zaie, alokairurako, pauso bat gehiago emanaz modu eragingarrian gauzatze aldera etxebizitza duin eta egoki bat izatearren Konstituzioak aitortzen duen eskubidea.

Azkenik, legezko eskubide horien berme gisa ezartzen da Nafarroako Arartekoaren eginkizuna dela horiek babesten eta hobetzen direla zaintzea, Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak

aitortutako eskubideei dagokienez Arartekoari buruzko Foru Legean gaur egun ezartzen den muga –teorikoagoa egiazkoa baino– gaindituz.

ATARIKO TITULUA

1. artikulua. Eskubideak eta printzipio gidariak.

1. Foru erakundeek eta Nafarroako administrazio publikoek foru lege honetan aitortzen diren eskubide publiko subjektiboak zeharo baliatu ahal izatea sustatuko dute bere eskumeneko arloetan, bai eta ondokoetan aitortutako eskubideak eta askatasunak ere: Konstituzioa, Europar Batasunaren Ituna eta bere xedapen osagarriak, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen aldeko Europar Konbentzioa, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna, Europako Gutun Soziala, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna eta eskubide eta askatasun publikoak aitortu eta ziurtatze aldera Espainiak sinatutako nazioarteko gainontzeko itun eta hitzarmenak.

2. Foru erakundeek eta Nafarroako administrazio publikoek herritarren nahiz haiek osatutako taldeen askatasuna eta berdintasuna egiazkoak eta eraginkorrak izateko baldintzak sustatuko dituzte, eta pertsona guztiei bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean parte hartzea erraztuko diete. Halaber, afera publikoetan eragile sozialek eta gizarte zibilak parte hartzea sustatuko dute.

2. artikulua. Eskubideen eta printzipio gidarien norainokoa eta interpretazioa.

1. Foru lege honetan jasotzen diren eskubide subjektiboak eta printzipio gidariak interpretatu, garatu eta aplikatzerakoan, horiek modurik zabalean eta eraginkortasun osoz baliatzearen aldeko hautua eginen da.

2. Foru lege honetan jasotzen diren eskubide subjektiboak eta printzipio gidariak ezin izanen dira interpretatu, garatu eta aplikatu Konstituzioak, lege organikoek eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunek eta hitzarmenek aitortutako eskubideak eta printzipioak murriztu edo mugatzeko moduan.

3. artikulua. Diskriminazioaren debekua.

1. Foru erakundeek eta Nafarroako administrazio publikoek pertsona guztien arteko berdintasuna sustatuko dute Foru Komunitateko lurralde osoan.

2. Debekatuta dago diskriminazio oro, foru lege honetan jasotzen diren eskubideak baliatzeari,

betebeharrak betetzeari eta zerbitzuak emateari dagokienez. Zehazki, debekatuta dago diskriminazioa ondoko edozein arrazoi dela eta: sexua, arraza, kolorea, jatorri etniko edo soziala, ezaugarri genetikoak, hizkuntza, kultura, erlijioa edo usteak, iritzi politikoak nahiz beste edozein eratakoak, jaiotza, ezgaitasuna, adina, sexu-joera edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial.

3. Arestiko idatz-zatian aipatzen den diskriminazio-debekuari esker, foru legeetan ekintza positiboak ezarri ahalko dira, zenbait sektore, talde edo pertsonaren gain ezartzen diren jarreretatik, jokabideetatik eta egituretatik heldu diren desabantailak desagerrarazteko edo konpentsatzeko.

4. artikulua. Titularrak.

1. Pertsona guztiak dira foru lege honetan nahiz kasuan-kasuan aplikatzekoak diren legeetan aitortutako eskubideen titularrak, foru lege honetako manuetan ezarritako moduan hain zuzen ere.

2. Zenbait eskubide baliatzeko, nafartasun politikoa eduki beharko da, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organiko 5. artikularekin bat, eta kasuan kasuko legeek ezarritako gainontzeko baldintzak bete beharko dira.

3. Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoan nahiz aplikatzekoak diren gainontzeko legeetan aitortzen eta ezartzen diren eskubideak eta betebeharrak izanen dituzte atzerritarrek Nafarroako administrazio publikoetan.

4. Bigarren idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, beste pertsona batzuk ere izan ahalko dira nafartasun politikoa dutenei foru lege honek aitortzen dizkien eskubideen titularrak, baldin eta xede horrekin ematen diren legeek hori xedatzen badute.

5. Pertsona guztiek dituzte foru lege honetako 30. artikuluan ezartzen diren betebeharrak.

I. TITULUA Eskubideak

5. artikulua. Pertsonen eskubideak.

Pertsona orok du eskubidea duintasunez, askatasunez, segurtasunez eta autonomiaz bizitzeko, eta esplotaziotik, tratu txarretatik eta diskriminazio orotatik aske, eta eskubidea du besteek errespetatu dezaten eta bere nortasuna eta gaitasun pertsonala modu askean garatzeko.

6. artikulua. Familiaren esparruko eskubideak.

Foru legeek nafartasun politikoa izatearen baldintza ezarri ahalko dute, familia-erantzukizunez arduratu eta laneko eta familiako eginkizunak batera eramateko laguntza publikoak eta prestazio sozialak jasotzeko eskubidea baliatu ahal izateari dagokionez.

7. artikulua. Adingabeen eskubideak.

1. Adingabe guztiek dute babeserako eskubidea eta bere ongizaterako beharrezkoak diren zainketak jasotzeko eskubidea. Askatasunez eman ahalko dute bere iritzia, eta iritzi hori aintzat hartuko da haiengan eragina duten gaietan, haien adinaren eta heldutasunaren arabera.

2. Adingabeek eskubidea dute familiaren, eskolaren nahiz gizartearen esparruan bere ongizaterako eta bere nortasunaren garapenerako beharrezkoak diren laguntza integrala eta babesa lehentasunez jasotzeko, bai eta legez ezartzen diren prestazio sozialak jasotzeko ere.

3. Adingabe orok du eskubidea aldi behin harreman pertsonala eta zuzena izateko bere aitarekin eta bere amarekin, salbu eta haren interesen aurkakoak badira.

4. Foru erakundeek eta Nafarroako administrazio publikoek ziurtatuko dute Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan aitortutako eskubideak baliatu ahal izanzen direla.

8. artikulua. Zaharren eskubideak.

1. Pertsona zahar guztiek eskubidea dute:

a) Duintasunez bizitzeko, errespetuaz tratatuak izateko eta adinarengatik diskriminatuak ez izateko.

b) Burujabeak izateko eta bere bizitzaren gaineko kontrola izateko.

c) Bere erkidegoaren bizitza sozial, kultural eta politikoa parte hartzeko.

2. Nafartasun politikoa duten pertsona zaharrek eskubidea dute bere autonomia pertsonalaren eta zahartze aktiboaren sustapenerako laguntza integrala eta babesa jasotzeko foru erakundeek eta Nafarroako administrazio publikoen aldetik, zeinari esker izan ahalko baitute bizitza burujabe bat eta gizarte ongizate nahiz banakakoa, eta eskubidea dute orobat laguntza gerontologiko egokia izateko osasun-, gizarte- nahiz laguntza-esparruetan eta legez ezartzen den moduan prestazio eta pentsio nahikoak jasotzeko.

9. artikulua. Emakumeen eskubideak eta aukera berdintasuna.

1. Gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna ziurtatzen da esparru publiko eta pribatu guztietan.

2. Emakume guztiek dute eskubidea bere nortasuna eta gaitasun pertsonala garatzeko eta duintasunez, segurtasunez eta autonomiaz eta esplotazioetik, tratu txarretatik eta diskriminazio orotatik aske bizitzeko.

3. Foru erakundeek eta Nafarroako administrazio publikoek behar diren neurriak hartuko dituzte emakumeak generoko indarkeriatik babesteko.

10. artikulua. Bizi-testamentua egiteko eskubidea.

1. Pertsona guztiek dute eskubidea minari aurre egiteko tratamendu egokia eta zainketa aringarri integralak jasotzeko eta bere heriotzaren prozesua duintasunez bizitzeko.

2. Pertsona guztiek dute eskubidea bere borondatea aldeztetik adierazteko, jaso nahi dituzten edo onartu nahi ez dituzten tratamendu medikoei buruzko jarraibideak adierazita uzte aldera. Borondate hori legeek ezarritako moduan errespetatu behar da, batez ere osasun arloko langileek, baldin eta pertsona hori ez badago bere borondatea pertsonalki adierazteko moduan.

11. artikulua. Osasunaren esparruko eskubideak.

1. Pertsona guztiek osasun sistema publiko eta unibertsal baten bidez bere osasunaren babes integrala jasoko dutela ziurtatzen da.

2. Pertsona guztiek dute eskubidea osasun arloko zerbitzu publikoak berdintasunez, unibertsaltasunez, kalitatez eta doan jasotzeko, legeek ezarritako moduan jaso ere.

3. Osasun publikoaren erabiltzaileek eskubidea dute sendagilea eta osasun-etxea libreki hautatzeko, legeek ezarritako moduan eta baldintzetan hautatu ere.

4. Pertsona guztiek dituzte ondoko eskubideak, osasun-zerbitzu publikoei eta pribatuei dagokionez, legeek ezarritako moduan eta baldintzekin:

a) Osasun-sistemaren zerbitzuei eta prestazioei eta dagozkien eskubideei buruz informatuak izateko.

b) Behar beste informazio jasotzeko bere gaitasun-prozesuei buruz eta tratamendu medikoei eta horien arriskuei buruz, tratamenduak aplikatu baino lehen.

c) Edozein interbentzio medikorako baimena emateko.

d) Bere nortasuna, giza duintasuna eta intimitatea errespetatuak izateko, inolako tratamendu edo praktika laidogarririk jasan gabe.

e) Aholku genetikorako eta medikuntza prediktiborako.

f) Zerbitzuak eskuratzeko eta tratamenduak aplikatzeko gehieneko epe bat, arrazoizko epe bat, ziurta dakien.

g) Bere prozesuei buruzko bigarren iritzi fakultatibo bat eskatzeko eskubidea, nahi hori adierazten duenean.

h) Minari aurre egiteko tratamendu egoki bat eta zainketa aringarriak jasotzeko eskubidea.

i) Tratamenduari uko egiteko, salbu eta tratamendu hori legez exijitzekoa bada.

j) Bere historia klinikoa eskuratzeko.

k) Intimitaterako eta bere osasunari eta ezaguri genetikoei buruzko datuen konfidentzialtasunerako.

l) Laguntza geriatriko espezializatua jasotzeko.

5. Gaixotasun mentala duten pertsonen, gaixotasun kronikoak eta baliaezintasunekoak dituztenek eta osasunaren ikuspuntutik arrisku-talde berariazkoetan sartuta daudenek eskubidea izanen dute osasun arloko lehentasuneko programetarako eta jarduketetarako.

12. artikulua. Hezkuntzaren esparruko eskubi-deak.

1. Pertsona guztiek dute eskubidea hezkuntza iraunkorra eta kalitatezkoa jasotzeko eta berdintasun-baldintzetan jasotzeko.

2. Gurasoei ziurtatzen zaie seme-alabek haien sinismenekin bat datorren heziketa erlijiosoa eta morala jasotzeko eskubidea dutela. Titulartasun publikoko eskoletako irakaskuntza Estatuaren izaera ez-konfesionalaren arabera izanen da.

3. Denek dute eskubidea egiazko berdintasun-baldintzetan eta diskriminaziorik gabe sartzeko funts publikoen bidez finantzatutako ikastetxeetan.

4. Ikasleek eskubidea dute ikasketetarako bekak eta laguntza publikoak jasotzeko, legeek ezartzen duten moduan eta baldintzetan, hezkuntza-eskakizunak asetze aldera eta hezkuntzako goi-mailetan berdintasun-baldintzetan sartze aldera, norberaren baliabide ekonomikoen, gaitasunen eta lehentasunen arabera.

5. Hezkuntza premia bereziak dituzten pertsonen eskubidea izanen dute, legeek ezartzen dutenarekin bat, hezkuntza-sistema orokorrean egiazki integratuta egoteko; kasua bada hezkuntza egokitu baten bidez.

6. Pertsona guztiek dute lanbide heziketa jasotzeko eskubidea, legeek ezarritako moduan.

7. Pertsona heldu guztiei hezkuntza iraunkorra jasotzeko eskubidea aitortzen zaie, lege ezartzen den moduan.

8. Hezkuntza-erkidegoko kideek eskubidea dute eskola- eta unibertsitate-afereetan parte hartzeko, legeak ezarritako moduan.

13. artikulua. Kulturaren esparruko eskubi-deak.

1. Pertsona guztiek dute eskubidea kultura berdintasun-baldintzetan eskuratzeko, Nafarroako ondare historikoaz eta artistikoaz gozatzeko eta bere sormen artistikoa, zientifikoa eta teknikoa, pertsonala nahiz taldekoa, aldezteko eta libreki garatzeko.

2. Pertsona guztiek dute eskubidea Nafarroako administrazio publikoek bere integrazio kulturala susta dezaten.

14. artikulua. Zerbitzuen eta gizarte prestazioen esparruko eskubi-deak.

1. Nafartasun politikoa duten pertsonen ondoko eskubi-deak dituzte. Horiek baliatzeko eta, kasua bada, gozatzeko, legeetan eta erregelamenduetan ezarritako baldintzak bete beharko dira:

a) Gizarte-zerbitzuen sistema publiko baten prestazioak berdintasun-baldintzetan jasotzeko, prestazio horiei buruzko informazioa jasotzeko eta haien pertsonalki eragiten dien edozein jarduketarako baimena emateko.

b) Mendekotasun egoeran baldin badaude, bere autonomia pertsonala, gizarteratzea nahiz laneratzea eta erkidegoko bizitza sozialeko partehartzea ziurtatzeko beharrezkoak diren prestazio publikoak jasotzeko. Mendekotasuna duten pertsonak bere kargura dituzten familiek eskubidea dute Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren laguntza bat jasotzeko.

c) Ezgaitasun-mailaren bat baldin badute, eskubidea dute tratu eta aukera berdintasunerako, bere bizitzaren edozein esparrutako irisgarritasunerako eta laguntza publikoak, kalitatezko zerbitzuak eta prestazioak jasotzeko, beharrezkoak direnak eguneroko bizitzan autonomia pertsonala izateko eta bere erabateko laneratzerako, gizarteratzerako nahiz hezkuntza-integrazioarako.

d) Txirotasun edo beharrizan egoeran baldin badaude, bizitza duina eta gizarteratzea ziurtatuko dien oinarrizko errenta bat jasotzera. Oinarrizko errenta hori familiaren osaeraren arabera izanen da.

2. Hirugarren gizarte-sektoreko erakundeek eskubidea dute gizarte-lankidetzaren eta -partaidetzaren esparruetan jarduteko.

15. artikulua. Lan eta okupazio esparruko prestazioen arloko eskubideak.

1. Lanerako eskubide konstituzionalari dagokionez, legez ezarritakoarekin bat, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren enplegu-zerbitzu publiko eta doakoa berdintasun-baldintzetan jasotzeko eskubidea ziurtatzen da.

2. Nafartasun politikoa dutenek eskubidea dute enplegu publikoa lortzeko berdintasun-baldintzetan eta merezimendu- eta gaitasun-printzipio konstituzionalen arabera, salbu eta, korporazioen erantzukizun sozialaren edo gizarteratzearen printzipioekin bat, talde jakin batzuen sarbidea sustatzen den kasuetan.

3. Pertsona guztiek izanen dute eskubidea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren menpeko lanbide-sustapenaren eta -prestakuntzaren arloko zerbitzu publikoak doan jasotzeko, arlo edo sektore profesional bakoitzari buruzko araubidean ezartzen diren baldintzekin bat.

4. Baldin eta lan merkatuan sartu ezin izan direlako lan merkatutik kanpo badaude eta bizibide berekirik ez badute, nafartasun politikoa duten pertsonak eskubidea izanen dute Nafarroako Foru Komunitatearen prestazio edo baliabide ez-kontributiboak, izaera aringarria dutenak, jasotzeko, edo laneratzera bideratutako korporazio-erantzukizun sozialeko planetan parte hartzea eskatzeko, foru lege bidez ezarritako moduan.

16. artikulua. Lanbide eta enpresa jarduera libererako eskubidea.

1. Nafarroako administrazio publikoek enpresak nahiz profesionalak libreki zirkulatzea eta kokatzea ziurtatuko dute, Konstituzioarekin eta Europar Batasunaren Itunarekin bat.

2. Nafarroako administrazio publikoek begiratuko dute bateragarria izan daitezen eskubide horiek libreki baliatzea eta interes orokorra, Nafarroako Foru Komunitatearen interes orokorra barne.

17. artikulua. Etxebizitzaren esparruko eskubideak.

1. Nafartasun politikoa duten pertsonak eskubidea dute etxebizitza duin, egoki eta irisgarri bat

izateko, pertsona guztientzako diseinuaren printzipioaren arabera taxutua, ingurumen eta paisaia egokian.

Etxebizitza duin bat izateko adina baliabide ez dutenek eskubidea izanen dute beren diru-sarreen arabera laguntza publiko bat jasotzeko, errentamendurako erabiliko dena, legez edo erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan eta kopuruan.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak etxebizitza izateko eskubidea gauzatzea sustatuko du, bereziki ondoko kasuetan: baliabiderik gabeko pertsonak, gazteak, indarkeriaren biktimak, ezgaituak eta babes publiko handiagoa justifikatuta dagoen pertsonen eta familien kasua.

18. artikulua. Hornidura publikoen eta erabile-
ra publikoko ekipamenduen esparruko eskubideak.

Pertsona guztiek dute eskubidea diskriminaziorik gabeko eta irisgarritasun unibertsaleko baldintzetan erabiltzeko hornidura publikoak eta erabile-
ra publikora irekitako ekipamendu kolektiboak, kasuan kasuko jarduera arautzen duen legediarekin bat.

19. artikulua. Lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren esparruko eskubideak. Pertsona guztiek eskubidea dute:

a) Lurraldearen antolamenduari, hirigintzaren antolamenduari eta horren ingurumen-ebaluazioari buruz Nafarroako administrazio publikoek duten informazioa jasotzeko eta emandako administrazio-egintzen edo -xedapenen kopia edo ziurtagiria jasotzeko, hirigintzaren alorreko legedian ezarritako moduan.

b) Administrazio eskudunak informazio osoa eman diezaien, idatziz eta arrazoizko epe batean, finka jakin bati aplikatzekoak zaizkion hirigintza-baldintzei eta -arabideari buruz.

c) Lurraldearen antolamenduko eta hirigintza antolamenduko eta exekuzioko edozein tresna lantzerakoan eta onesterakoan parte-hartze efektiboa izateko, alegazioak, oharrak, proposamenak, erreklamazioak eta kexak aurkeztuz eta Administrazioaren aldetik erantzun arrazoitua jasoz, hirigintzaren arloko legediarekin bat.

d) Nafarroako administrazio publikoetan akzio publikoa baliatzeko, hirigintza eta lurralde antolamenduko arauak errespetarazte aldera, bai eta arau horiek nahiz proiektuek jasotzen dituzten tresnen ingurumen-ebaluazioko prozeduretatik heldu diren erabakiak ere, hirigintzaren arloko legediarekin bat.

e) Hirigintza eta lurralde antolamenduko ekimenak proposatzeko, hirigintzaren arloko legedian ezarritako moduan, eta ekimen horiek hasiera batean onets daitezzen eta jendaurrean jar daitezzen, eta hori ez da oztopo izanen administrazio eskudunak behin betiko onespenerako egintzan xedatu beharrekoa xedatzeko.

20. artikulua. Ingurumenarekin zerikusia duten eskubideak.

1. Pertsona orok du eskubidea ingurumen ekologikoki orekatu, iraungarri eta osasuna errespetatzen duen batean bizitzeko, legeek zehaztutako estandarrekin eta babes-mailekin bat.

2. Denek dute eskubidea berdintasunez gozatzeko baliabide naturalez, babestutako naturagunez eta paisaiaz.

3. Ingurumenerako eskubidea bermatzen da egoki babestuz dibertsitate biologikoa eta prozesu ekologikoak, ondare naturala, paisaia, ura, airea eta baliabide naturalak.

4. Pertsona orok du eskubidea babestua izateko zeinahi kutsadura modutatik, legeak zehaztutako estandarren eta mailen arabera.

5. Bereziki, pertsona guztiek dute eskubidea beren bizilekua edukitzeko zaratarik gabe edota bestelako edozein immisio kutsagarririk gabe, kontuan hartuta, horretarako, aplikatzekoa den legediak onartzen dituen gehieneko mugak.

6. Pertsona orok du eskubidea botere publikoek ingurumenaren inguruan eskuera duten informazioa sarbidea izateko, legeek ezarritako moduan.

7. Aitortzen da eskubidea dagoela akzio publikoak erabiltzeko Nafarroako administrazio publikoek exijitze aldera errespetatzea Nafarroako ingurumena, naturaguneak, paisaiak eta ondare naturala babesten dituen legedia. Akzio horren arrazoia baldin bada lege kanpokoak jotzen diren obrak egitea, akzioa erabiltzen ahalko da obrak egiten ari diren bitartean eta ingurumenaren arloko legedia babesteko neurriak hartzeko ezarritako epeak igaro arte.

21. artikulua. Ur hornidurarekin zerikusia duten eskubideak.

Denek dute eskubidea, garapen iraungarriaren esparruan eta Foru Komunitatearen eskumenen esparruan, ura modu eraginkorrean eta efizientean erabiltzeko, eta baliabide horren hornidura nahikoa izatekoa, bai zenbatekoari bai kalitateari dagokionez, beren oraingo eta etorkizuneko beharrianak asetzeko, hala giza kontsumorako nola jarduera sozial eta ekonomikoak gauzatzeko, jarduera hori-

ek Nafarroako lurraldea egituratzeko eta berreskatzeko baliagarriak direnean muga bakarra izanen dute interes orokorrak ezarritakoa.

22. artikulua. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak.

1. Pertsona guztiek, ondasunen eta zerbitzuen kontsumitzaile eta erabiltzaile gisa, honako eskubide hauek izanen dituzte:

a) Osasuna eta segurtasuna babestua izatekoa.

b) Produktuen eta zerbitzuen ezaugarriei nahiz prezioei buruzko informazioa egiazkoa eta ulergarria izatekoa.

c) Eskuratutako produktuarentako eta kontratatutako horniduretarako berme-araubide bat izatekoa.

d) Beren interes ekonomiko eta sozial zilegien defentsarako, jokabide abusuzkoak, arduragabeak edo iruzurrezkoak gertatuz gero.

e) Informatuak izatekoa eta parte hartzekoa, zuzenean edo beren ordezkarien bidez, Nafarroako administrazio publikoen aurrean, lege ezarritzen den moduan.

f) Legezko eskubideei eta betebeharrei buruzko prestakuntza eta informazioa izatekoa.

2. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak babestu eginen du ondasunen eta zerbitzuen kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkartzeko eskubidea.

23. artikulua. Kalitatezko zerbitzu publikoak izateko eskubidea.

1. Pertsona orok du eskubidea bai zerbitzu publikoak bai interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak berdintasunez eskuratzeko, bai eta zerbitzu horietan tratatu pertsonalizatua eta egokia jasotzeko ere.

2. Nafarroako administrazio publikoek ezarriko dute zer baldintza beharko diren zerbitzu publikoak eskuratu ahal izateko eta zer estandar izan beharko dituzten zerbitzuok; kudeaketa eredu berritzaileak ezarriko dituzte, halaber, zerbitzuen hobetze etengabea ahalbidetzeko eta kalitatearen ebaluazioa egin ahal izan dadin, eta interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak behar bezalako kalitatez emanen direla ere behatuko dute.

24. artikulua. Administrazio ona izateko eskubidea

Berarekin zerikusia duten gai guztietan, pertsona orok ditu ondoko eskubideak Nafarroako administrazio publikoekiko harremanetan:

a) Arreta adeitsua, arduratsua eta konfidentziazkoa izatekoa.

b) Eskabideak, eskaerak, erreklamazioak eta helegiteak aurkeztekoa.

c) Bere gaiak modu inpartzialean eta objektiboki tratatuak izatekoa, bazterketarik gabe jaitza, sexua, adina, arraza, erlijioa, iritzia edo bestelako baldintza edo zirkunstantzia pertsonal edo sozial dela medio.

d) Administrazio publikoen jardunbidea betiere proportzionatua izatekoa jardunbide hori justifikatzen duten helburuekin.

e) Berari eragiten dioten erabakietan bete-betean parte hartzekoa.

f) Informazio egiazkoa, argia, soila eta ulertezkoa eskatzekoa eta lortzekoa administrazioaren jardueraren gaineko alderdiei buruz, horiek eragina izan dezaketenean bere eskubideetan, interes zilegietan eta betebeharretan, bai eta ondasunen eta zerbitzuen erabileran, bai eta prestazio publikoen erabileran ere, bermatuta dutela, betiere, beren nortasunari buruzko konfidentzialtasuna.

g) Gaiak arrazoizko epe batean aztertuak eta ebatziak izatekoa, eta Administrazioaren erabaki espresa legez ezarritako epean jasotzekoa.

h) Entzunak izatekoa bere kontrako banakako neurri bat hartu baino lehen.

i) Dagokion espediente administratiboa aztertzea, baina legezko interesak, konfidentzialtasuna eta merkataritzako eta lanbideko sekretua errespetatuz.

j) Izapidetzen ari diren administrazio-espedienteak aztertzea, baldin eta haietan interesduntzat hartuak badira, eta Administrazioaren artxibo eta erregistroak aztertzea ere bai, indarreko arautan ezarritakoaren arabera, artxibo eta erregistro horien euskarria edozein dela ere. Eskubide horrek berarekin dakar agirien kopiak egiteko eskubidea, edo ziurtagiriak eskuratzekoa, betiere legez ezarrita dauden tasa edo prezioak ordainduz gero, horrelakorik baldin badago.

k) Erabaki arrazoitua eskuratzekoa.

l) Herritarrekin zerikusia duten prozedura administratiboak burokratikoegiak edo konplikatuegiak ez izatekoa.

m) Kasuko erregistro administratiboetan idazkiak eta agiriak aurkeztekoa, aurretik bere nortasuna egiaztatuta, bai eta horiek aurkeztu izanaren egiaztapena jasotzekoa ere.

n) Prozedurari aplikatzekoak diren arauak ezartzen ez dituzten agiriak edo jadanik Foru Komunitateko Administrazioaren esku daudenak ez aurkeztekoa.

o) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak publikotasunaren printzipioa bete-betean errespetatuz jardun dezan, legeek herritarrei esleitzen dizkieten eskubideen eraginkortasuna bermatuta egoteko.

p) Zehapenak, halakorik ezartzen bazaio, eginko arau-haustearekin proportzionatuak izatekoa.

q) Eskea egiteko eskubide konstituzionala erabiltzekoa, hori arautzen duen lege organikoarekin bat.

r) Zerbitzuen funtzionamenduari buruzko iradokizunak, erreklamazioak eta kekek adieraztekoa.

s) Sorrarazi zaizkion kalteengatiko ordaina jasotzekoa.

25. artikulua. Tributu-administrazioekin zerikusia duten eskubideak.

Zergadun orok, bere harreman juridiko-tributarioetan, ondoko eskubideak ditu Nafarroako administrazio publikoen aurrean:

a) Tributu Administrazioak informazioa eta laguntza eman diezazkion bere tributu betebeharrak betetzeko eta betebeharrak horien eduki eta garrantziaren gainean.

b) Itzul dakizkion okerreko diru-sarrerak eta ofizios tokatzen direnak; halakoetan, legeetan ezarritako berandutza-interesa ere ordainduko zaio, hartarako errekerimendurik egin gabe ere.

c) Ordain dakion, legez ezarritako moduan, tributu zor baten betearaztea eteteko jarritako abal eta beste bermeen kostua, epai edo administrazio ebazpen irmo batek zor hori bidegabekotzat deklaratu bezain laster.

d) Alderdi den prozeduren izapideak zertan diren jakitekoa.

e) Bera interesduna den tributu kudeaketako prozedurak izapidetzeko ardura duen Tributu Administrazioaren zerbitzuan ari diren agintari eta langileen nortasuna ezagutzekoa.

f) Berak aurkeztutako aitortzen ziurtagiria eta kopia eskatzekoa.

g) Berriz ez aurkezteko lehendik aurkezturik dituen eta Administrazioak bere esku dituen dokumentuak.

h) Tributu Administrazioak lortu dituen datuen, txostenen edo aurrekarien isilpekotasuna errespe-

ta dadin, legeek agintzen duten moduan. Horiek erabili ahalko dira bakarrik Administrazioak kudeatu behar dituen tributu edo baliabideak aplikatzeko, eta ezin izanen zaizkie hirugarrenei laga edo jakinarazi, legeek aurreikusiriko kasuetan salbu.

i) Tributu Administrazioaren langileengandik behar bezalako errespetu eta begiramenezko tratu jasotzekoa.

j) Tributu Administrazioaren egintza batek zergadunak parte hartzea behar badu, parte-hartze hori zergadunari arinena gertatzen zaion moduan egin dadin.

k) Alegazioak egin eta dokumentuak aurkeztekoa, eta erakunde eskudunak horiek kontuan har ditzaten kasuan kasuko ebazpen proposamena idazterakoan.

l) Entzuna izatekoa entzunaldiaren izapidean, ebazpena eman baino lehen.

m) Informazioa jasotzekoa, erosi edo eskualdatuko diren ondasun higiezinak duten balioaren gainean.

n) Informazioa jasotzekoa, tributu ikuskaritzak aurrera eramandako egiaztatze- edo ikertze-jarduketak hastean, egiaztatze-ikertze horien izaeraren eta garrantziaren gainean, bai eta ekintza horiek dirauteino dituen eskubide-betebeharren gainean, eta jarduketa horiek foru lege honek agintzen dituen epeetan egin daitezzen ere bai.

ñ) Behar diren bermeak izatekoa arau-haustekak eta zehapenak izaten direnetan, eta tributukudeaketaren berezko eragiketetan ere bai; berme horiek bereziki ziurtatuko dira helegiteak eta aurkaratze ekonomiko-administratiboak aurkezteko aukera emanez, legeetan agindutako moduan betiere.

26. artikulua. Datu pertsonalak babesteko eskubidea.

1. Pertsona orok du eskubidea bere datu pertsonalak babestuek egon daitezzen; hain zuzen ere, Nafarroako administrazio publikoetako eskumenekoak diren fitxategietan eta datu-baseetan biltzen direnak, eta administrazio horiekin zerikusia duten edo horien menpekoak diren ente eta enpresa publikoen fitxategietan eta datu-baseetan daudenak, baita horiekin lan egiten duten edo horiei laguntza ematen dieten enpresa pribatuenetan daudenak ere.

2. Era berean, pertsona orok du eskubidea bere datu pertsonaletara sarbidea izateko, datuok aztertze, eta horiek zuzentzea eta ezabatzea lortzeko ere bai.

27. artikulua. Hizkuntza-eskubideak.

Era berean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekiko harremanetan herritar guztiek dute gaztelania edo euskara erabiltzeko eskubidea, Nafarroako foru legerian ezarritakoari jarraikiz betiere.

28. artikulua. Justiziaren eskuragarritasuna.

Nafarroako Foru Komunitateak, bere eskumenen esparruan, Justizia Administrazioak Nafarroan ematen dituen zerbitzuen kalitatea bermatuko du, eta biktimei arreta ematen zaiela ere bai, bereziki ekintza terroristen eta generoko indarkeriaren biktima direnei; doaneko justizia eskuratu ahal izatea ere bermatuko du.

29. artikulua. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien eskuragarritasuna.

Aitortzen da pertsona orok duela eskubidea teknologia berriak eskuratzeko eta erabiltzeko, eta ezagutzaren gizartean aktiboki parte hartzeko eskubidea ere bai, legeek ezartzen dituzten bitarteko eta baliabideen bidez.

II. TITULUA Betebeharrak

30. artikulua. Betebeharrak

1. Pertsona orok hurrengo betebeharrak ditu:

a) Besteen eskubideen erabilera zilegia eta ez abusuzkoa errespetatzea.

b) Gastu publikoei aurre egiten laguntzea, bere gaitasun ekonomikoaren arabera.

c) Ingurumena zaintzea eta babestea.

d) Arduraz erabiltzea baliabide naturalak, babestutako naturguneak eta paisaia.

e) Ondare naturala zaintzen laguntzea, eta kutsadura mota desberdinak ezabatzea bideratutako jarduketetan ere bai, ondare naturalari eutsi dakion eta zainduta egon dadin etorkizuneko belaunaldientzat.

f) Hirigintzaren edo ingurumenaren arloko legeak baimentzen ez dituen ekintzak edo jarduerak ez egitea.

g) Katastrofe eta larrialdi egoeretan laguntzea.

h) Herritarrek Hauteskunde Administrazioan duten parte-hartzetik eratorritzen diren betebeharrak betetzea, eta hauteskunde-legeetan ezarritakoa errespetatzea.

i) Administrazio publikoen zerbitzuko langileekin adeitasunez jokatzeko.

j) Errespetatzea eta modu arrazionalen eta egokian erabiltzea jabari publikoko ondasunak eta azpiegitura nahiz zerbitzu publikoak, betiere horien ezaugarriekin, eginkizunarekin eta zerbitzu-gaitasunarekin bat; era berean, aplikatzekoa den legedia hautsiz ondasun publikoak asaldatzeko edo kaltetzeko arriskua dakarren edozein ekintza egiteari uko egitea.

k) Prestazio eta zerbitzu publikoak arduraz eta elkartasunez erabiltzea, eta horien funtzionamenduan laguntzea, kasuan-kasuan ezarritako arauak behar bezala errespetatuz, eta errespetatuz, orobat, gainerako erabiltzaileak eta prestazio nahiz zerbitzu horiek emateaz arduratzen diren pertsonak.

l) Ondare publikoa errespetatzea eta zaintzea, bereziki izaera urbanoa, kulturala eta historiko-artistikoa duena, eta ondare horren zaintzan eta gozamenean laguntzea.

m) Seme-alaben heziketan laguntzea, bereziki derrigorrezko hezkuntzan.

n) Zuzeneko lerroko aurreko ahaideak mantentzeko, artatzeko eta zaintzeko betebeharrak betetzea.

o) Legez ezartzen den beste edozein.

2. Betebehar horiek ez betetzeak administrazio-zehapena ekarriko du berekin, aplikatzekoak diren legeek hala tipifikatzen dutenean eta lege horietan xedatutakoaren arabera.

III. TITULUA

Politika publikoen printzipio gidariak.

31. artikulua. Xedapen orokorrak.

1. Konstituzioan ezartzen diren politika sozialaren eta ekonomikoaren printzipio gidariak gorabehera, Foru Komunitateko eta Nafarroako toki entitateen politika publikoak bideratuko dira titulu honetan jasotzen diren printzipio gidarien arabera. Beren eskumenak erabiltzean, foru erakundeek eta Nafarroako administrazio publikoek behar diren neurriak sustatu eta hartuko dituzte, printzipio gidarien eraginkortasun erabatekoa ziurtatzeko.

2. Titulu honetan jasotako printzipio gidariak bideratuko dira, gainera, pertsona eta talde jakin batzuen egoera pertsonalaren edo sozialaren edo beste edozein marjinazio edo bazterkeria motaren ondorioz jazo litezkeen desberdintasun eta diskriminazio egoerak gainditzera. Horretarako, printzipio horien garapenak erraztu egingen du pertsona eta taldeoi dagozkien zerbitzuak eta prestazioak eskuratzea, eta ezarriko du, halaber, zein kasutan izanen diren horiek doanekoak, egoera ekonomikorik okerrenen ondorioz.

32. artikulua. Hartzaileak.

1. Titulu honek aipatzen dituen printzipio gidariaren hartzaileak izanen dira foru erakundeak eta Nafarroako administrazio publikoak.

2. "Foru erakundetzat" hartuko dira Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak aipatzen dituenak eta Nafarroako Parlamentuak izaera horrekin foru lege sortutakoak.

3. Nafarroako administrazio publiko izanen dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa, Nafarroako toki entitateak, horien menpeko erakunde publikoak, horiek sortzen dituzten sozietateak eta fundazio publikoak, baldin eta gehieneko partaidetza edo kontrol erabakigarria mantentzen badute. Nafarroako administrazio publiko izanen dira, orobat, lege sortzen edo arautzen diren administrazioak, zuzenbide publikoko entitateak, zuzenbide publikoko korporazioak edo elkargo ofizialak, administrazio batek edo batzuek eraturako partzuergoak, eta, oro har, legeak edo administrazio batek sortu eta interes publikoaren aldekoa den edozein entitate.

4. Aurreko idatz-zatian xedatua gorabehera, Nafarroako administrazio publiko oro egonen da behartuta foru lege honetan jasotzen diren printzipio gidariak sustatzera; betiere, antolamendu juridikoari jarraikiz gaian eskuduna den neurrian.

33. artikulua. Pertsonen bizi-kalitatea hobetzea.

Foru erakundeek eta Nafarroako administrazio publikoek helburu izanen dute pertsona ororen bizi-kalitatea hobetzea. Horretarako, kalitatezko zerbitzu publiko batzuk bultzatuko dituzte.

34. artikulua. Familia.

1. Familiaren babes soziala, juridikoa eta ekonomikoa ziurtatzen da, oinarritzko egitura baita eta gizarte kohesioko faktorea, eta pertsonen elkarbizitzako eta laguntzarako lehenbiziko gunea.

2. Familiaren babesa integrala izanen da; babes hori legedi zibilaren arabera existitzen diren familia mota guztiei emanen zaie, eta familiok ziurtatuta izanen dute berdin tratatuak izatea.

3. Foru erakundeek eta Nafarroako administrazio publikoek familiak babesteko neurri ekonomikoak eta araubidekoak sustatuko dituzte, ziurtatze aldera bateragarriak izanen direla lana eta familia eta ziurtatze aldera familiek seme-alabak izanen dituztela; arreta berezia jarriko zaie familia ugariari.

4. Familien informazioa, prestakuntza eta orientazioa sustatuko da, eta behar bereziak dituzten familientzako arreta.

5. Bikote egonkorren eskubideak babestuko dira horiei buruzko foru legeak ezarritako moduan.

35. artikulua. Adingabeak.

1. Foru erakundeek eta Nafarroako administrazio publikoek adingabeen babesa ziurtatuko dute, eta bereziki babestuko dituzte edozein motatako esplotaziotik, abandonutik, tratu txar edo krudelkeriatatik eta pobreziatik eta horren ondorioetatik.

2. Botere publikoek edo erakunde pribatuek gauzatutako jarduketa guztietan, adingabearen interes nagusiak lehentasuna izanen du.

3. Betiere, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak adingabearen tutoretza ziurtatuko du. Adingabeei buruz hartzen den edozein neurri izan behar du bete-betean hezigarria eta gizarteratzailea; kontuan hartuko du adingabearen familia- eta gizarte-integrazioa, eta haren identitatearen konfidentzaltasunaren printzipioari lotuko zaio.

36. artikulua. Gazteak.

Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek:

a) Gazteen emantzipaziorako eta autonomiarako lagungarriak diren politika publikoak sustatuko dituzte.

b) Prestakuntza, lana eta etxebizitza izatea erraztuko diete gazteei, halako moduz non beren bizitza-proiektua garatu ahal izan dezaten.

c) Ahalbidetuko dute gazteek bizitza publikoan eta gizartean parte-hartze ahalik eta zabalena izatea, eskubide eta betebeharrak berekin betiere.

37. artikulua. Adineko pertsonak.

Foru erakundeek eta Nafarroako administrazio publikoek adineko pertsonen babesa ziurtatuko dute, bizimodu duin eta autonomoa izan ahal dezaten, eta erkidegoko gizarte-, hezkuntza- eta kultura-bizitzan parte hartu ahal izan dezaten.

Adineko pertsonak erabat gizartera daitezen ere saiaturiko dira, horretarako belaunaldien arteko elkartasunaren printzipioa eta zahartze aktiboaren printzipioa oinarri dituzten politika publikoak erabiliz.

Zehazki, adineko pertsonen ziurtatuko zaizkie babes juridikoa eta osasunarena, bizitoki egokia izateko modua, kultura eta aisia, eta parte-hartze publikorako eta elkartzeko eskubideak.

38. artikulua. Ezgaitasunak dituzten pertsonak.

1. Ezgaitasunak dituzten pertsonen dagokienez, Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek:

a) Horien babesa eta autonomia pertsonala ziurtatuko dituzte.

b) Horien gizarteratzea, integrazio ekonomikoa, juridikoa eta laneratzea sustatuko dituzte, printzipiook oinarri hartuta: diskriminazio ezarena, irisgarritasun unibertsalarena eta aukera berdintasunarena.

c) Sustatuko dute parte har dezaten erkidegoaren bizitzan eta eragiten dieten politiken zehaztapenean, beren interesak ordezkatzeko dituzten elkarten bitartez, horretarako aukera berdintasunaren politika erabiliz eta eginbide positiboko neurriak garatuz.

d) Komunikazioa ahalbidetuko dieten hizkuntzak ere erabiliko dituzte. Bereziki, gorren keinuhizkuntzaren erabilera ziurtatuko dute, eta ziurtatuko dituzte, halaber, beharrezkoak diren baldintzak hizkuntza hori aukeratzen duten pertsona gorren eskubide eta betebeharren berdintasuna erabatekoa izan dadin; keinuhizkuntza irakatsi, babestu eta errespetatu eginen da.

e) Ezgaitu sentsorialekiko komunikazioa ahalbidetuko duten sistemen erabilera inplementatuko dute.

f) Oztopoak kentzea bultzatuko dute zerbitzu edo erabilera publikoko guneetan, instalazioetan eta egoitzetan, eta bidaiarien garraiobide publiko kolektiboan.

g) Behar diren neurriak hartuko dituzte, pertsona horien inguru familiar zuzenekoaren babesaren osagarri.

2. Foru erakundeek eta Nafarroako administrazio publikoek babes berezia emanen diete mende-kotasun egoeran dauden pertsonen, halako moduz non bizi-kalitate duinaz gozatzeko modua izanen baitute, eta ziurtatuko diete, halaber, autonomia pertsonala ziurtatzeko beharrezkoak dituzten presztazio publikoak izateko eskubidea.

39. artikulua. Gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna.

1. Foru erakundeek eta Nafarroako administrazio publikoek ziurtatuko dute betetzen dela gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunaren printzipioa lana lortzean, prestakuntzaren arloan, lanbidean aurreraterakoan, lan-baldintzetan, ordainsariak barne direla, eta gainerako egoe-

ra guztietan, eta ziurtatuko dute, orobat, emakumeak ez direla diskriminatuko haurdun egoteagatik edo amatasunagatik, halakoetan zehatu eginen baita diskriminazio hori.

2. Foru erakundeek eta Nafarroako administrazio publikoek ziurtatuko dute zeharkakotasuna dagoela politika publiko guztiei genero ikuspegia eta emakumeen ikuspegia eransten zaienean; helburua da gizonen eta emakumeen arteko parekotasuna lortzea, eta berdintasun benetakoa eta egiazkoa.

3. Politika publikoek ziurtatuko dute modu integratuean eginen zaiela aurre emakumeen aurkako indarkeria mota guztiei eta ekintza sexista nahiz diskriminatzailerei; sustatuko dute, halaber, emakumeek hainbat arlotan izan duten eta duten zereginaren aitorpena, hala nola arlo kulturalen, historikoan, sozialean eta ekonomikoan; eta, era berean, emakumeen taldeen eta elkarten parte-hartzea ere sustatuko dute politika horiek prestatzean eta ebaluatzean.

4. Foru erakundeek eta Nafarroako administrazio publikoek, beren politika ekonomiko eta sozialak ezartzean, kontuan hartuko dute zer balio duten etxean eta familian egiten diren zaintze- eta artatze-lanek.

5. Foru erakundeek eta Nafarroako administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan jokatuz eta legeetan ezarritako kasuetan, behatuko dute erabakigarria izan dadin emakumearen borondate librea, baldin eta jokoan baldin badago emakumearen duintasuna, osotasuna eta ongizate fisiko eta mentala.

40. artikulua. Osasun publikoa.

Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek:

a) Biztanleriaren osasuna zaindu eta babestera zuzendutako osasun publikoko prestazioak sustatuko dituzte.

b) Osasun zerbitzu publikoaren zerbitzuaren kalitatea, doakotasuna eta unibertsaltasuna ziurtatuko dute, legeek ezarritako moduan.

41. artikulua. Gizarte-ongizatea eta -kohesioa.

Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek:

a) Gizarte zerbitzuen sistema publiko bat sustatuko dute, pertsonen eta taldeen artean emateko behar adinakoa, guztizko garapen pertsonal eta soziala lortzera bideratua eta Nafarroako adierazle ekonomiko eta sozialei egokitua.

b) Gizarte-kohesioa sustatu eta gizarte-marjinazioa eta -bazterkeria bideratzen duten arrazoiak desagerraraziko dituzten politika publikoak bultzatuko dituzte.

c) Babesaren premia handiena duten pertsonen eta kolektiboen erabateko integrazio sozial, ekonomiko eta lanekoa zainduko dute, bereziki marjinazio eta pobrezia egoeran eta gizarte-bazterkeria pairatzeko arriskuan daudenen kasuan.

d) Pertsonen duintasuna, segurtasuna eta babes integrala zainduko dituzte, bereziki ahuldaide egoeran dauden pertsonen kasuan.

e) Prebentzio-politika komunitarioak sustatuko dituzte, eta legeek oinarritzat jotzen dituzten gizarte zerbitzuen kalitatea eta doakotasuna ziurtatuko dituzte.

f) Pertsona guztien arteko bizikidetasuna eta sinesmen eta konbikzio etiko eta filosofikoen aniztasunarekiko errespetua zainduko dute, eta kulturen arteko harremanak sustatuko dituzte, elkarrekin aitorpenerako, elkarriketarako eta bitartekaritzarako esparruak bultzatuz eta sortuz.

g) Ijitoen erkidegoko kulturaren aitorpena ziurtatuko dute.

42. artikulua. Emigranteak.

1. Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek behar diren neurriak sustatu eta hartuko dituzte nafarrak beren lurrian bizitzeko eta lan egiteko daukaten eskubideaz egiazki baliatu ahal izanen direla ziurtatzeko, kanpoan bizi direnak itzul daitezela erraztuko duten baldintzak sortuz.

2. Jatorriz Nafarroakoak diren edo Nafarroatik heldu diren eta beste autonomia erkidego batzuetan nahiz Espainiatik kanpo bizi diren herritarrek, bai eta haien elkarte eta gizarte zentroek ere, beren jatorri edo etorkiaren aitortza izanen dute, eta Nafarroako bizitza sozial eta kulturalaren alde laguntza emateko eta hura partekatze eskubidea izanen dute.

43. artikulua. Immigranteak.

Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek behar diren ekintzak abiaraziko dituzte immigratutako pertsonen harrera egiteko araubide bat ezartzeko, haien laneko integrazioa eta integrazio ekonomiko, sozial eta kulturala sustatuko dute eta ziurtatuko dute haien eskubideen eta betebeharren aitorpena eta eraginkortasuna, hezkuntza munduan integratuko direla eta gai publikoetan parte hartuko dutela, legeetan ezarritako moduan.

44. artikulua. Parte-hartzea sustatzea.

Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek:

a) Gizarte zibilaren sendotzea eta elkartegintzaren, boluntariotzaren eta gizartearen parte-hartzearen sustapena bilatuko dute.

b) Politika publikoak egin, eman eta ebaluatzerakoan gizarteak parte har dezan sustatuko dute, bai eta banakakoek eta elkarteek arlo zibiko, sozial, kultural, ekonomiko eta politikoan parte har dezaten ere, betiere aniztasuna, ekimen askea eta autonomia guztiz errespetatuz.

c) Erraztasunak emanen dituzte herritarrek parte hartzeko eta ordezkaritza izateko eta parte-hartze eta ordezkaritza politikorako, eta arreta berezia jarriko diete lurraldean biztanle gutxien dauzkaten eskualdeei eta mendiko eskualdeei.

45. artikulua. Hezkuntza.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak:

a) Kalitatezko hezkuntza sistema bat garatuko du, irekia, anitza eta parte-hartzailea, interes publikoari zuzendua eta ikasleen nortasuna libreki garatuko dela ziurtatuko duena.

b) Ikasleen giza prestakuntza zientifiko eta tekniko bultzatuko du, honako balio sozialetan oinarritua: berdintasuna, elkartasuna, askatasuna, aniztasuna, erantzukizun zibikoa, tolerantzia, bizikidetasun baketsua eta bizikidetasun demokratikoa oinarritzen duten gainerakoak.

c) Irakaskuntzaren doakotasuna bermatuko du derrigorrezko hezkuntza maila guztietan eta legez ezartzen diren gainerako mailetan.

d) Beketarako eta ikasketetan laguntzeko sistema bat ezarriko du, ziurtatzeko ezen pertsona guztiek, beren baliabide eta gaitasunen arabera, gainerako hezkuntza mailetarako sarbidea izanen dutela.

e) Ikastetxe pribatueterako funts publikoak artikulatuko ditu, legeetan ezarritakoaren arabera, irakaskuntzara berdintasun- eta kalitate-baldintzetan iristeko eskubidea ziurtatzeko. Berdintasun-baldintzetan iristearen ondorioetarako, ikasleak onartzeko ezartzen edo exijitzen diren irizpideak ezin izanen dira inolaz ere izan baztertzailak, justifikaziorik gabe.

f) Hezkuntza planetan dibertsitatearen eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren balioak txertatzea, bizitza politiko eta sozialaren arlo guztietan. Hezkuntza sistemak sustatuko ditu ikas-

leek ekintzaileak izateko duten gaitasuna, eleaniztasuna eta teknologia berrien erabilera.

g) Hezkuntza sistema orokorra osatuko du Nafarroari buruzko irakaskuntza berariazkoekin.

h) Sustatuko du ikasleek, derrigorrezko hezkuntza bukatzerakoan, Europar Batasuneko gaztelaniaz bestelako lan hizkuntza ofizial bat behar bezala menperatzea.

i) Bultzatuko du familiak seme-alaben hezkuntzan inplikatzeko eta parte hartzea bultzatuko du, hezkuntza erkidegoaren esparruan, eta aisialdiko hezkuntza jarduerak egin daitezzen erraztasunak emanen ditu eta haietarako sarbidea izatea sustatuko du.

j) Nafarroan dauden unibertsitateen lana bultzatuko du eta irakasteko eta ikertzeko jardueran bikaintasuna lor dezaten sustatuko du.

2. Nafarroako Unibertsitate Publikoak ziurtatuko du bertara berdintasun baldintzetan sartu ahal izatea, legean ezartzen den moduan.

46. artikulua. Ikerketa, garapena eta berrikuntza.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bultzatu eta sustatuko ditu ikerketa zientifikoa, garapena, kalitatezko berrikuntza teknologiko eta tekniko eta sormen artistikoa, Foru Erkidegoaren aurrerapen sozial eta ekonomikoa bermatzeko lehentasun estrategiko gisa.

47. artikulua. Kultura.

Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek:

a) Nafarroako herriaren nortasuna eta balio kulturalak babestea eta defendatzea zainduko dute.

b) Nafarroako kultura autoktonoa eta kultura horrek kanpoan presentzia izatea bultzatuko dute.

c) Aniztasun kulturalarekiko errespetua sustatuko dute.

d) Ziurtatuko dute Nafarroako ondare kultural, historiko eta artistikoa zainduko dela, balioan jarriko dela eta zabalduko dela.

e) Behar diren ekintzak sustatuko dituzte pertsona guztiei sarbidea emateko Nafarroako kulturara, kultur ondasun eta zerbitzuetara eta ondare kultural, arkeologiko, historiko, industrial eta artistikora.

48. artikulua. Arlo sozioekonomikoa.

1. Nafarroako Foru Komunitateko foru erakundeek eta Administrazioak behar diren neurriak har-

tuko dituzte Nafarroaren eta haren herritarren aurrerapen ekonomiko eta soziala sustatzeko, honako printzipioetan oinarrituta: elkartasuna, gizarte- eta lurralde-kohesioa, garapen iraungarria eta aukeren berdintasuna.

2. Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek beren jardueretan pertsonen eta lurraldearen errentaren banaketa ekitatiboagoa bultzatuko dute, ongizate sistema baten esparruan.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak elkarrizketa soziala, eragile ekonomiko eta sozialekiko kontzertazioa eta negoziazio kolektiboa bultzatuko ditu, bai eta ekoizpen-egituraren garapenean eta hobekuntzan parte hartzea ere. Horretarako, gizarte eragileekiko topaketa-esparru instituzional iraunkorrak bultzatu eta hobetuko ditu.

4. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, bere eskumenen esparruan, erabateko enplegu egonkorra eta laneko segurtasun- eta osasun-baldintzak sustatuko ditu, bai eta ondokoak ere: lan arriskuen prebentzioa, laneko prestakuntza eta sustapena, enplegura sartzeko aukeren berdintasuna eta gizonezkoen eta emakumezkoen guztizko lanbide-parekatzea eta laneko eta familiarako bizitzak uztartzea.

5. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak enpresa-jardueraren garapena eta izpiritu ekintzailea erraztuko ditu, kontuan hartuta enpresaren erantzukizun soziala, ekimen librea eta lehiarako baldintzak, eta bereziki babestuko ditu ekonomia produktiboa, ekintzaile autonomoen jarduera, enpresa txiki eta ertainen jarduera eta ekonomia sozialeko ekimenak, bai eta kooperatibismoa ere. Halaber, enpresen kanpo-proiektzioa sustatuko du.

6. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bitartekaritza eta arbitrajea sustatuko ditu, eragile sozialen arteko interesen gatazkak ebazteko.

7. Lanbide erakundeei eta interes ekonomiko eta profesionalak ordezkatzan dituzten zuzenbide publikoko korporazioei eta hirugarren sektoreko elkarteei kontsulta eginen zaie haiengan eragina duten politika publikoen definizioari buruz.

8. Foru erakundeek, aurrezki kutexek dauzkaten funtzio sozial, kultural eta sustapen ekonomikokoak aintzat hartuta, entitate horien erakunde-autonomia babestu eta haiek Nafarroako estrategia ekonomiko eta sozialeko ekarpen soziala egin dezatela sustatuko dute.

49. artikulua. Lehen sektorea.

Nafarroako lehen sektorearen aitorpen sozial eta kulturalaren ikuspuntutik eta ekoizpen-jardueran eta jarduera ekonomikoan eta paisaia, lurraldea, ingurumena, kultura eta Nafarroako identitatearen bereizgarrienak diren tradizio eta ohiturak mantentzeko zereginean sektore horrek betetzen duen funtzio garrantzitsua aitortuta, administrazio publikoek neurri politiko, fiskal, juridiko eta legegintzakoak hartuko dituzte sektore horren -nekazaritza-elikagaien sektorea ere barne dela- eskubideak ziurtatzeko, garapen teknologikoaren eta bioteknologikoaren bitartez, bai eta nekazari, abeltzain, basozain, ekoizle eta enpresaburuek neurri horien garapenean eta babesean dauzkaten eskubideak ziurtatzeko ere.

50. artikulua. Ingurumena eta garapen iraungarria.

1. Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek ingurumenaren babesa zaindiko dute, eta horretarako behar diren politika publikoak ezarriko dituzte, garapen iraungarria eta elkartasun kolektiboan eta belaunaldien artekoan oinarrituta.

2. Ingurumen arloko politiketan, honako printzipioak izanen dira gida: prebentzioa, zuhurtzia eta etorkizuneko belaunaldien eskubideekiko errespetua. Politika horiek bereziki zuzenduko dira kutsadura modu desberdinak gutxitzea, babeseko estandarrak eta gutxieneko mailak finkatzea, ingurumen eraginak zuzentzeko neurriak taxutzera, baliabide naturalak modu arrazionalan erabiltzera, airearen eta uraren kalitatea zaintzera, higidura eta egoera atmosferiko eta klimatikoa asaldatzen duten jarduerak prebenitzera eta kontrolatzera, energia berriztagarriak bultzatu eta garatzera, energia aurreztera eta efizientzia energetikoa bilatzera, eta honakoak errespetatzera: ingurumena zaintzeko printzipioak, natur baliabideen eta eremuen zainketa, erantzukizuna, fiskalitate ekologikoa eta ondasun eta produktuak birziklatu eta berrerabiltzea.

3. Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek natura eta biodibertsitatea zaintzeko beharrezkoak diren baldintzak gauzatu egiten dituzte, ingurumen helburuak politika sektorialetan integratzea sustatuko dute eta behar diren baldintzak ezarriko dituzte pertsona guztiek ondare naturalaz eta paisaiaren ondareaz goza dezaten.

4. Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek erraztasunak emanen dizkiete herritarrei ingurumen arloko informazioa izan dezaten, eta ingurumena ondare komuna den aldetik zain-

du eta hobetzeko balioetan oinarrituriko hezkuntza sustatuko dute.

51. artikulua. Hirigintza eta lurralde-oreka.

Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek:

a) Hiri ingurunearen kalitateari eutsi eta hura hobetuko dute.

b) Lurzoruaren erabilera arrazionala defendatuko dute, eta behar diren neurri guztiak ezarriko dituzte espekulazioa saihesteko.

c) Hirigintza jardueratik heldu diren onuren eta zamen banaketa zuzena sustatuko dute, eta ziurtatuko dute erkidegoak egoki parte hartzen duela lurralde-ekintzak eta hirigintza-ekintzak sorturiko plusbalioetan.

d) Sustatuko dute herritarrek parte har dezaten lurraldearen antolamenduan eta hirigintzan, eta herritarrek informazioa izateko duten eskubidea ziurtatuko dute.

e) Ondare publikoen eraketa eta zabaltzea sustatuko dute.

f) Kohesio ekonomikoa eta lurralde-kohesioa zainduko dituzte, eta horretarako politika batzuk aplikatuko dituzte, batetik Nafarroako mendialdeko eremuen tratamendu berezia eta bestetik produkzio sektore, interes orokorreko zerbitzu eta komunikazio sareen lurralde banaketa orekatua segurtatuko dutenak.

g) Landa eremuen modernizatzea eta garapen integrala sustatuko dituzte, eta behar adinako azpiegitura eta zerbitzu publikoak emanen dizkiete.

h) Nafarroako hiri eremu eta landa eremu desberdinen arteko desoreka ekonomiko, sozial eta kulturalak zuzentzea sustatuko dute.

i) Neurri instituzional, ekonomiko, industrial eta sozialak taxutuko dituzte, biztanleria finkatzeko, integratzeko, areagotzeko eta erakartzeko.

52. artikulua. Ibai-ekosistemak eta urari lotutakoak.

Nafarroako foru erakunde eta administrazio publiko eskudunek ibaien, hezeguneen eta urarekin lotutako gainerako ekosistema eta paisaien zainketa eta hobekuntza zainduko dituzte, uraren erabilera arrazionala sustatuz eta urak saneatu eta arazteko sistema egokiak ezarriz.

53. artikulua. Etxebizitza

1. Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek erraztasunak emanen dituzte etxebi-

zitza duin eta egokia eskuratzeko, jabetzan nahiz errentan, etxebizitzetarako lurzorua sortuz eta etxebizitza babestua sustatuz, gazteei eta premia handiena duten kolektiboei arreta berezia jarritz.

2. Honako helburu orokor hauek izanen dituzte Nafarroako administrazio publikoek etxebizitzaren arloan:

a) Biztanleriaren benetako beharretarako egokia den etxebizitza-eskaintza egitea.

b) Etxebizitzen eta haien ingurunearen kalitatea hobetzea eta ziurtatzea.

c) Jabetza-araubidean nahiz errenta-araubidean etxebizitza babestuak eraiki daitezela sustatzea.

d) Etxebizitza babestuetarako lurzorua lortu eta urbanizatzea, eta haiei zerbitzu eta ekipamendu egokiak ematea.

e) Etxebizitzen eta hiri-eremuen zaharberritzea sustatzea.

f) Hutsik dauden etxebizitzen errentamendua sustatzea.

g) Errenta-araubideko etxebizitzak sustatzea eta erabilera-modu horren arabera etxebizitzen parkeak egitea.

h) Etxebizitza ekologikoari laguntzea, bioeraikuntzaren eta bioklimatismoaren bidez.

3. Etxebizitza babestuen sustapenentarako sarbidea, funtsean, honakoei erreparatuta emanen da: etxebizitzaren premia frogatuei, errentari eta eskatzaileen behar bezala justifikatutako beste inguruabar batzuei.

4. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak zainduko du etxebizitza babestuak ohiko bizitoki iraunkor gisa erabiltzen direla eta haiekin ez dela espekulatzeko.

54. artikulua. Herritarren babesa.

Nafarroako administrazio publikoek laguntza eta babes zibila eskainiko dituzte larrialdi, katastrofe nahiz hondamendi publikoko egoeretan, larrialdiak kudeatzeko sistema bateratu eta integratu baten bitartez. Bereziki zainduko dituzte katastrofe natural eta ustekabekoek sortutako kalteak pairatu dituzten pertsonen eskubideak eta betebeharrak.

55. artikulua. Mugikortasuna eta bide-segurtasuna.

1. Arloko eskumenak dituzten Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek garraio- eta komunikazio-politikak sustatuko dituzte, iraungarritasun irizpideetan oinarrituak, garraio publiko-

aren erabilera eta mugikortasunaren hobetzea sustatzeko, betiere mugikortasun murriztua duten pertsonen irisgarritasuna ziurtatuz.

2. Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek, lehentasunez, bide segurtasuna areagotzeko eta trafikoko istripuak gutxitzeko neurriak bultzatuko dituzte, prebentzioa, bide-heziketa eta biktimekiko arreta bereziki nabarmenduz.

56. artikulua. Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak.

Nafarroako foru erakunde eta administrazio publiko eskudunek:

a) Osasunaren babesa, segurtasuna eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubide eta interes zilegien babesa ziurtatuko dituzte.

b) Kontsumoaren arloko bitartekaritza eta arbitraje tresnak badaudela ziurtatuko dute, eta bultzatuko dute herritarrek haiek ezagutu eta erabiltzea, eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen erakundeei lagunduko diete.

c) Kontsumo arduratsu, solidario, iraugarri eta kalitatezkoa sustatuko dute, bereziki elikagaien arloan.

57. artikulua. Turismoa.

Nafarroako foru erakunde eta administrazio publikoek turismo jarduera bultzatuko dute Nafarroako elementu ekonomiko estrategiko gisa.

Turismo jardueraren sustapenaren eta antolamenduaren xedea izanen da jarduera hori bateragarri gertatzea ingurumenarekiko errespetuarekin, kultur ondarearekin, paisaia eta lurraldearekin eta epe ertain eta luzean hazkunde ekonomikoa errazteko xedea duten sustapen eta antolamendu ekonomikoko politika orokor eta sektorialak bultzatzearekin.

58. artikulua. Euskararen sustapena eta zabalkundea.

Nafarroako foru erakunde eta administrazio publikoek sustatuko dute euskara erabil, zabaltu eta ezagut dadila Euskarari buruzko Foru Legean ezarritako moduan, Nafarroako hizkuntza berekia eta ondare kulturala baita.

59. artikulua. Bakea garatzen eta sustatzen laguntzea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak herrien garapenerako lankidetzak-ekintzak eta politikak sustatuko ditu, eta giza laguntzarako larrialdiko programak ezarriko ditu.

2. Nafarroako foru erakundeek eta administrazio publikoek bakearen kultura sustatuko dute

honako balio demokratikoak aldeztuz: askatasuna, berdintasuna, aniztasuna, justizia, elkartasuna, parte-hartzea, gizarte kohesioa, generoko ekitate, garapen iraugarria, indarkeria eza, tolerantzia eta zibismoa. Eta munduan bakea sustatzeko ekintzak eginen dituzte.

3. Nafarroako foru erakunde eta administrazio publikoek indarkeria, gorrotoa, bazterkeria edo intolerantzia bultzatzen edo justifikatzen duen edo, beste gisaren batera, pertsonen duintasunaren, askatasunaren edo berdintasunaren aurka egiten duen jarduera oro errefusatuko dute.

60. artikulua. Hedabideak.

1. Informazioak edo ideiak agintari publikoen injerentziarik gabe komunikatzeko eskubidea ziurtatzen da.

2. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren bitartez, behar diren baldintzak sustatuko dira herritarrek informazio anitza eta egiazkoa eta pertsonen duintasuna, aniztasun politiko, sozial, kultural eta erlijiosoa errespetatuko duten edukiak jasotzeko daukaten eskubidea ziurtatzeko. Titularitate publikoko hedabideen kasuan, informazioa neutrala ere izanen da.

3. Irrati-esparrua adjudikatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak kontuan hartuko ditu Nafarroako kulturaren hedapena, tokiko informazio handiena ematea eta balio sozialen sustapena.

4. Hedabideekiko beren harremanetan, Nafarroako foru erakunde eta administrazio publikoek gardentasun eta objektibotasun printzipioak errespetatuko dituzte.

5. Nafarroako administrazio publikoek sustatuko dute Nafarroako kultura hedabideetan zabaltu eta presente egon dadin.

61. artikulua. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien eskuragarritasuna.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak:

a) Bilatuko du Nafarroa jakintzaren gizartean guztiz sar dadin.

b) Erraztasunak emanen ditu informazioaren gizartea zabaltzeko, eta komunikazioa eta informazioarako teknologiak eskuratzea bultzatuko du, bizitza sozialeko esparru guztietan, baita lanaren esparruan ere, eta Nafarroako lurralde osoan.

c) Bultzatuko du teknologia horiek pertsonen zerbitzuan jar daitezela eta eragin negatiborik ez dezatela izan haien eskubideetan.

d) Ziurtatuko du zerbitzuak teknologia horien bitartez ematen direla, unibertsaltasun, jarraitutasun eta gaurkotasun printzipioen arabera.

e) Prestakuntza, ikerketa eta berrikuntza teknologikoak sustatuko ditu, jakintzaren eta informazioaren gizarteak aurrerapenerako eskaintzen dituen aukerek ongizatea eta gizarte kohesioa hobetzen lagun dezaten.

2. Nafarroako administrazio publikoek herritarrekiko harremanetan administrazio elektronikoa pixkanaka ezarriko dute, eta hura gaurkotu eta modernizatuko dute.

IV. TITULUA

Eskubideetarako bermeak.

62. artikulua. Araugintzako bermeak.

1. Foru lege honetako I. tituluari aitortutako eskubideek zuzenean lotuko dituzte Nafarroako foru erakunde eta administrazio publiko guztiak. Nolanahi ere, auzitegietan exijitu ahalko dira, foru lege honetan eta aplikatzekoak diren gainerako guztietan ezarritakoaren arabera.

2. Foru lege honetako II. tituluari aitortutako eskubideek partikular guztiak lotuko dituzte, nafartasun politikoa izan nahiz ez izan.

3. III. tituluari aitortutako politika publikoen printzipio gidarien aitortzea, errespetua eta babesa Nafarroako foru erakundearen eta administrazio publikoaren araugintza-ahalmenean eta jardueran islatuko dira. Partikularrek printzipio horiek auzitegietan exijitu ahalko dituzte, soilik, aplikatzekoak diren legeetan eta haiek garatzeko gainerako xedapenetan ezarritakoaren arabera.

63. artikulua. Eskubideen defentsa.

Beste erakunde berme-emaile batzuen eginkizunak ezertan ere kendu gabe, Nafarroako Arartekoaren erakundeak foru lege honetan aitortutako diren eskubideen defentsa eta babes-mailaren hobetzea zainduko ditu, bai eta antolamendu juridikoak herritarrei aitortzen dizkien gainerako eskubide subjektibo publikoak ere. Halaber, Nafarroako administrazio publikoaren jarduerari gainbegiratzeko eta zerbitzu publikoak hobetzeko daukan eginkizunaren barruan, kontuan hartuko ditu foru lege honetako III. tituluari aitortutako politika publikoak direla-eta jaso diren printzipio gidariak.

Lehenengo xedapen gehigarria. Indarrik gabe geldituko dira foru lege honi kontra egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

Bigarren xedapen gehigarria. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da flebotomia terapeutikoak modu zentralizatuan eta hematologiako espezialista baten ikuskaritzapean egin daitezen.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak, 2010eko urriaren 26an egindako bileran, erabaki zuen Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko ondoko mozioa erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea: "Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da flebotomia terapeutikoak modu zentralizatuan eta hematologiako espezialista baten ikuskaritzapean egin daitezen."

Mozio hori 2010eko irailaren 10eko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko urriaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, Osasun-ikerketako Institutua sortzeari buruzkoa.*SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Osasun-ikerketako Institutua sortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Samuel Caro Sádabak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasun handiko gal-

dera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak heldu den Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Iragan azaroaren 6an, hauxe irakur zitekeen foru erkidegoko hedabide batean: "Osasun-ikerketako Institutua sortu da."

Albistean irakur zitekeen Nafarroako Gobernu-ko Osasun Departamentuak eta Nafarroako Unibertsitateak Nafarroako Osasun-ikerketako Institutua sortu dutela, osasunari lotutako ezagutza zientifikoa sustatzea helburu.

Hori dela eta, honako galdera egin nahi dut:

Nafarroako Unibertsitate Publikoak zergatik ez du Osasun-ikerketako Institutuan parte hartzen?

Zer harreman izanen du institutu horrek Ikerketa Biomedikoko Zentroarekin?

Iruñean, 2010eko azaroaren 8an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Galdera, gizarte-prestazio oro agorturik duten eta langabezia dauden nafarrekin Nafarroako Gobernuak dituen konpromisoei buruzkoa.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, gizarte-prestazio oro agorturik duten eta langabezia dauden nafarrekin Nafarroako Gobernuak dituen konpromisoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2010eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, azaroaren 11ko Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan:

Zer konpromiso ekonomiko eta sozial du Nafarroako Gobernuak gizarte-prestazio oro agorturik duten eta langabezia dauden nafarrekin?

Iruñean, 2010eko azaroaren 8an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Galdera, jakiteko zer aurreikusi duen Nafarroako Gobernuak Entzierroaren eta Sanferminen Zentro Tematikoaren obren hasiera atzeratzeko eta moratoria bat aplikatzeko.

JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Andrés Burguete Torres jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zer aurreikusi duen Nafarroako Gobernuak Entzierroaren eta Sanferminen Zentro Tematikoaren obren hasiera atzeratzeko eta moratoria bat aplikatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2010eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteko José Andrés Burguete Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak erantzun diezaion:

Zer aurreikusi du Nafarroako Gobernuak Entzierroaren eta Sanferminen Zentro Tematikoaren obren hasiera atzeratzeko eta moratoria bat aplikatzeko?

Iruñean, 2010eko azaroaren 8an

Foru parlamentaria: Jose Andrés Burguete Torres

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuko lehendakariak uste ote duen gure erkidegoa jadanik krisi osteko fasean dagoela, ala langabeziaren igoerari beste politika batzuen bidez aurre egiteko asmoa ote duen.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuko lehendakariak uste ote duen gure erkidegoa jadanik krisi osteko fasean dagoela, ala langabeziaren igoerari beste politika batzuen bidez aurre egiteko asmoa ote duen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko azaroaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko eledun Ion Erro Armendarizek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasuneko ondoko ahozko galdera aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran erantzuteko:

Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, % 12,47koa da langabezia-tasa, eta 42.000 pertsona baino gehiago daude izena emanda enplegu bulegoetan.

Nafarroako Gobernuko lehendakariaren ustez, gure erkidegoa jadanik krisi osteko fasean da, ala autokonplazentzia alde batera utzi eta langabeziaren igoera horri beste politika batzuen bidez aurre egiteko unea iritsi da?

Iruñean, 2010eko azaroaren 8an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

